

Ikuspegi artistiko-kulturaletik prozesu berritzaileekin eta gizarte eraldaketarekin zerikusia duten proiektu puntualetarako laguntzak

ESKATZAILEAK

Irabazi asmorik gabeko erakundeak, mikroenpresak (10 langile eta 2 milioi euro baino gutxiagoko negozio-bolumena) eta pertsona fisiko autonomoak (honako jarduera ekonomikoak: 86 multzoa -2 sekzioa- eta 01, 02, 03 -3 sekzioa-) baldin eta helbide fiskala Gipuzkoan badute.

Diruz lagungarriak diren proiektuak era askotakoak izan daitezke: prestakuntza, sentsibilizazioa, zabalkundea edo koordinazioa arlo artistiko ezberdinetan, epe laburrean garatzen badira.

Proiektuek barne har ditzakete garatzeko beharrezkoak diren funtzionamendu-gastuak.

Kanpo geratzen dira ondasun inbentariagarriak, besteak beste.

Eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetara

AURKEZTU BEHARREKOA

Eskaera orria bete behar da, honako hau aurkeztuta:

- Proiektuaren laburpena eta aurrekontua (diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua eta orekatua) (derrigorrezkoa)

- Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jardueraren gaineko azalpen txostena (aukerazkoa)

Eskaera orria egoitza elektronikoan dago eskuragarri

BALDINTZAK

- Kulturaren arloko proiektuak izatea
- Unean uneko proiektuak izatea: epe laburrean garatzen direnak (egun batean, astebetean...)
- Gipuzkoan gauzatzea
- Deialdiaren urtean garatzea (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra)
- Ekonomikoki bideragarriak izatea
- Gutxienez GJHetako (Garapen Jansangarrirako Helburuak) batean eragitea

BALORAZIOA BI FASETAN

1. fasean baloratuko da proiektua deialdiaren helburura egokitzen den, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat, besteak beste: garapen jasangarriaren helburuetara egokitzea, parte hartzeko kanalak irekitzeko gaitasuna eta kalitate kulturala.

Gehienez, 65 puntu.

2. fasean baloratuko da aurrekontua proiektuarekin bat datorren, bai eta zeharkako beste gai batzuk ere, hala nola euskararen sustapena, genero berdintasuna eta gazteen parte hartzea.

Gehienez, 35 puntu.

Balorazioan, 1. fasean 35 puntu lortu beharko dira 2. fasera igaro ahal izateko, eta gutxienez 50 puntu lortu beharko dira bi faseen baturan, proiektua dirulaguntza emateko proposamenean sar dadin.

1. fasea	65
Garapen Jasangarriko helburuetako bati gutxienez egokitzea eta izaera berritzailea izatea	15
Parte hartzeko kanalak irekitzeko eta beste kultura-eragile batzuekin lankidetzaz-sareak antolatzen gaitasuna	15
Proiektuaren kalitate kulturala eta planteatzen den testuinguruaren deskribapena	25
Proiektuaren hedapen digitala	10
2. fasea	35
Aurrekontua eta baliabideak	9
Euskararen sustapena eta presentzia	8
Genero berdintasuna	8
Gazteen parte-hartzea	10

DIRU KOPURUA

Dirulaguntzaren zenbatekoak ez du gaudituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 70a.

Horrek esan nahi du proiektuak aurrekontuaren %30 gutxienez ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

EPEAK

- **ESKAERAK AURKEZTEKO**

Dirulaguntza honetan eskaerak aurkezteko epea 28 egun naturalekoa izango da.

Azken eguna: 2023-03-30

- **ZURIKETA AURKEZTEKO**

Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 1era izango da.

- **ORDAINKETA**

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 ebazpena argitaratu eta gero, gainerako %40a zuriketa aurkeztu ondoren.

TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>)
Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)

Taula hau K bulegoak egindako laburpena da.

Araudi aplikagarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa da eta komeni da arretaz irakurtzea eskaera egin baino lehen:

Oinarri orokorrak [GAO, 78 zk., 2021eko apirilaren 29koa](#)

Oinarri espezifikoak eta deialdia [GAO, 42 zk., 2023ko martxoaren 2koa](#)

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari lotuta izan ditzakezun dukekin.

T 943 11 33 43 / kbulegoa@gipuzkoa.eus / www.kbulegoa.eus

Santa Teresa komentua

Elbira Zipitria bidea 1
20003 Donostia

Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00

K
B
U
L
E
G
O
A



* Bidelaguntza zerbitzua erabilgarri duzu, bulego ordutegitik kanpo ere.